

# B

BARREN

# Mendizaletasunaren eguna

TOKIKOM



ELGOIBARKO  
UDALA



## ***Etxean, sailkatu zaborra gaika***

Eman izena edukiontzi  
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)



# LAGUNAK KOLTZOI DENDA-TEXTIL HOGAR

Ohe geriatiko jasotzailea + Visco Passion koltxoia



Pack **MEDICAL**

**1.349<sup>99</sup>** €

Zerbitzu  
Adarra



VISCO PASSION

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)




Plasmacellon



terxy



Ohe geriatrikok



Masajedun besauek



## VIENTO SUR GASTROTEKA

### Eguneko Menu Osasuntsua astartetik ostirala

- Fruta eta barazki zukua + Plater osasuntsua (proteina osasuntsua + ale integrala + barazkiak) + Azkenburukoa
- \* Ura, ardoa eta ogi osasuntsua barne.

### Menu Eredugarria

- Sagar, naranja eta azenario zukua
- Indioilar txutela plantxan, arroz integrala perretxiko eta barazkiekin, tomate entsalada
- Jogurt greziarra etxean egindako mermeladarekin eta zerealekin edo fruta-brotxeta mango karameloarekin
- Ura edo ardo kopa eta espelta ogia.
- \* Kafea edo infusioa + euro 1

Bernardo Ezenarro, 17 • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) • [vientosur21@gmail.com](mailto:vientosur21@gmail.com) • [vientosur21.com](http://vientosur21.com)

Telefonoa: 943 03 34 53 - 618 259 339





Iñigo  
Lariz

Aupa Ainhoa, Udaberria etortzearekin batera eski denboraldiari agur esan diot. Denboraldi oparoa izan da aurtengoa elurrari dagokionez. Aspaldian gogoratzen dudana elur pilatze handiena izan dugu mendietan eta horrek hilabete batzuetan mendiaz eta eskiaz gozatzeko aukera emango die batzuei. Baina urte sasoi honekin batera, landareak loratzen hasten diren modura, askotariko kirol-probak ere hasten dira inguruan: martxa zikloturistak, herri lasterketak, duatloi eta triatloiak, eta geroz eta indar handiagoa hartzen ari diren mendilasterketak ere bai. Erresistentzia oinarri duten kirolak dira guztiak, eta ondorioz, zenbat eta proba luzeagoa orduan eta erronka handiagoa. Gainera, kirola modu horretan egiten dugunon artean badago pentsaera adierazgarri bat: distantzia ertain edo luzeak egin ezean, badiudi ez dugula kirolik egiten. Dena den, egiten dena gorabehera, nork bere satisfazio pertsonala izan behar du helburu nire ustez. Eta norberak ikusi behar du zer egin behar duen hori lortzeko.



Ainhoa  
Lendinez

Kaixo, Iñi! Niretzat ere inoiz baino oparoagoa izan da atzean utzi berri dugun negua: mendi-eskia probatzera eramanez mendiak, eta asko gozatu dut. Erronkez eta frustrazioez luze hitz egin dezakegu. Joan den urtean Hiru Handiak proba entzutetsuak ilusio handi bat lapurtu zidan: erronka jo nion, eta irabazi egin zidan. Denboraldia ondo hasi arren duatloietan, burdina zela, tentsioa zela, gainbehera iritsi zitzaidan eta udaberri amaieran loreak neguan baino ximelago nengoen: buruz zein gorputzez. Ondorio bat atera nuen: ondo pasatzeko entrenamenduak eginez gero, ondo pasatzea izan behar du helburua; lehiatu nahi baduzu, lehiatzeko moduko entrenamenduak egin behar dituzu. Madariondoari ezin baitzaio sagarrak eskatu. Larunbatean hitzaldi ezin interesgarriagoa izan zen Elgoibarren Gabriel Ruiz medikuarekin. Hark esan zuen gizakia mugitzeko sortu zela eta beraz, gauzak egin egin behar direla, erdoildu ez gaitezen. Esan zuen osasuntsu egotea geure esku dagoela, gaixotasunak sendatzea ere bai, eta ondorioz baita zoriontsu izatea ere.

**“Egiten dena gorabehera, nork bere satisfazioa izan behar du helburu”**

Dena den, badakigu honek guztiak osasunarekin nolako lotura daukan? Jarduera fisikorik ez egitea osasunarentzat kaltegarria dela frogatuta dago, gure gorputza mugitzeko sortua delako. Baina nola mugitzeko? Eta zenbat denboraz mugitzeko? Argi izan behar dugu jarduera mota guztiak ez dituztela helburu berdinak lortzen eta osasuna badugu helburu muga batzuk izan behar ditugula egiten dugun horretan. Askotan erronka pertsonalek muga horiek gainditzera eramaten gaituzte, eta lortu nahi dugun helburutik gerturatu ordez alden du egiten gaituzte.

**“Ilusioetatik frustrazioak sortzeari utzi eta bizitzaz gozatzeko unea iritsi da”**

Bizitzako porrot, garaipen, ilusio eta tristurek gudan nolako eragina duten, osasuna edo gaixotasuna ekarriko digutela. Kirolean beldurretan bizi izan naiz orain arte, Iñi. Helburuak beteko ditudan beldur. Baina helburua zoriontsu izatea bada, bizitzan bezala kirolean ere ez dago besterik jokoan, geure zoriona baino. Ilusioetatik frustrazioak sortzeari utzi eta bizitzaz gozatzeko unea iritsi dela ohartu naiz. Horrenbestez, asteburuan, Debako triatloian ez bada, Elgoibarko itzulian ikusiko dugu elkar, eta bestela, igandean berdin-berdin gozatuko dugu Erlora edo Karakatera igota.

**Laster ezkontza gehigarria**  
**Publizitatea egin nahi baduzu jarri gurekin harremanetan**

**B** BARREN

943 744 112 – [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92  
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Gernika gogoratu

Apirilaren 26an. azken urteotan ohi denez, Gernikaren bonbardaketa dela eta egiten diren ospakizunen artean, Logroñoeko espetxean preso dagoen Arnaldo Otegi eta PSEko buru den Jesus Egigureni eman zieten Gernika Gogoratu taldeak bakegintzan dihardutenei eskaintzen dien saria. Egigurenek ez zuen nahi izan berak pertsonalki saria jaso eta bai bataren eta bai bestearen alabak atera ziren eskenategira aita bien izenean. Partidu eta erakunde askoren babesa izan zuen ekitaldiak herriko Lizeo antzokian ospatutako ekitaldian. Zorionak sarituei eta Euskal Herriari.

Arnaldo askatu politika askatu plataforma

### Espektakuluaren gizartea

Espektakuluaren gizarteko produkzio handiena da. Kontzeptuaren zentzu zabalean, espektakulu informazioa, propaganda edo dibertsioen kontsumoa zuzena dira. Baina espektakulu ez da irudi multzo bat; espektakulu giza erlazioak dira, gutxi batzuk kontrolatzen dituzten informazio eta entretenimenduen bidez baldintzatuta.

Gizartea oso polarizatuta dago. Batzuk aberatsak, besteak ez. Batzuek kontrolatzen dute ekonomia eta politika, besteek ez. Bitartean espektakulu *omnipresente* dabil, klaseen arteko zapalkuntza eta interes kontrajarriak ezkutatuz. Zaila da espektakulu ikustea, toki guztietan dagoelako. Guztiok erreproduzitzen ditugun jarre-ak, kultura eta ideologiaren oinarri aberatsenak monopolizatzen dituzten medioetatik dator. Errebeldia ere aberatsek kontrolatu dute, ondare eta zerbitzuen zabalkundea hori bezalako fenomeno sozial bat baldintzatuz iritsi ahala.

*La Sociedad del Espectaculo* Guy Debord izeneko iraultzaile filosofoak idatzi zuen 1967an. Horri buruzko pelikula ere egin zuen. Stalinismoaren erregimen burokratiko eta antidemokratikoaren aurrean, batzarren bidezko sistema politiko parte hartzailean sinesten zuen. Liburuko pasarte batzuk ulertzen saiatuko gara maiatzaren 14an. Elgoibarko gaztetxean elkartuko gara, 20:00etan, eta guztiok gonbidatuta zaudete, zer ikasi eta eztabaidatu badagoelako. Nahi duenak afaria eraman eta tertulia jango dugu. Animatu autoformakuntzen espektakulura!

Aimar Uribesalgo Urzelai

### Bost mila eta bostehun

Astean behin, auzoko taberna batean sartu eta bost laguneko taldetxo egoten da bertan. Ez dute hutsik egiten, eta ez dago zalantzarik: berbalagunak dira. Freskagarri bat eskatu, eta ondoan esertzen naiz batzuetan. Asteburuari buruz hitz egiten dute, gizarte arazoei buruz, Athletic-i buruz... hitz egitea baita euren helburu nagusia, euskaraz hitz egitea. Boskote hori, ordea, ez da kasu isolatu bat. Urte hasierarekin batera, datu bilketa egin dugu Euskaltzaleen Topagunean, eta hara! 5.500 mintzalagun daude Euskal Herri osoan. 5.500 herritar, euskaldunon komunitateko kide aktibo izateko prest.

Euskaraz aritzeko ohitura dutenak ohiturarik ez dutenekin elkartzen ditu mintzapraktika programak. Euskaldunen elkartean mugimenduak, euskaltegiek eta zenbait udalek apustu sendoa egin zuten duela hainbat urte, eta ordutik etengabe ari dira mintzalagun taldeak bikoizten. Mintzalagunek euskarara hurbiltzeko egiten duten ahalegina goraitpatzen dugu askotan, baina zer egin dezakegu freskagarria hartuta inguruan esertzen garen euskaldunok? Erronka handi bat daukagu. Euskaldunon elkarteek, bertako bazkideek zein euskaldun guztiok, talde txikitari sortzen ari den dinamika hori zabaltzeko eginkizuna daukagula uste dugu Topagunean. Mintzalagunen eginahala gizarteratu behar dugu. Kalera atera ginen, ziren, baina orain administrazioa, dendetara, bulegoetara zein merkatura atera behar dugu. Astero ordubetez egiten duten ahalegina egunerokora zabaldu behar dugu, hizkuntza ohituretan eragin, eta euskararentzako eta euskaldunontzako gune berriak irabazi behar ditugu. Algortako tabernan zein Bergarako parkean biltzen diren boskote horien lana islatu dezagun.

Ezin dugu ardura guztia euskaltegien esku utzi, hauek lana ederto eginda ere. Herritarra komunitatean parte hartzeko gogoz dago, eta euskaldun guztioren funtzioa da kide berriei ateak zabaltzea. Mintzalagunen taldeek ez dute zentzurik, talde horietatik kanpo euskararen erabilera bultzatzen ez badugu. Irabazi ditzagun gune berriak, eta lagundu diezaiegun gurekin batera ari- tu nahi duten horiei, euskaldunon komunitateak kide berriak izan ditzan.

Arrate Illaro, Euskaltzaleen Topagunea

## Uztargi tabernak irabazi du Mendaroko pintxo lehiaketa

Herritarrek Menditxoko pintxo aukeratu zuten onenentzat



Uztargi tabernak irabazi du Mendaroko II. pintxo lehiaketa. Zapore, testura eta originaltasuna izan dira epaimahaiak aintzat hartu dituen irizpideak, eta Uztargiko pintxoak 99 puntu eskuratu ditu. Bigarren saria Menditxok eskuratu du (93,50), eta Txirristaka tabernak hirugarrena (93 puntu). Herritarren saria, berriz, Menditxo tabernak jaso du bigarren urtez jarraian. Lehiaketak parte hartu zuten herritar guztien artean zozketa ere egin zuen Mendaroko Udalak, eta Marian Idiakezek irabazi zuen. Lehiaketan parte hartu zuten tabernetan gastatzeko, hamar euroko hamar bono eskuratu zituen Idiakezek.

## Debarren kontra lehiatuko dira Mendaroko gizon probetako mutilak, maiatzaren 18an



Mendaroko gizon probetako taldea Debako taldearen kontra lehiatuko da hilaren 18an, Debarra egunean, Deban. Erakustaldia da berez, baina azken egunetan proba horrek hartu duen oihartzuna ikusita, garbi dago broma gutxi izango dela eguna iristen denean. Hondartza ondoko probalekuan arituko dira, 900 kiloko harriari tiraka. 12:00ean hasiko da indar-erakustaldia.

## Santanetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Lehiaketa bidez aukeratu du Mendaroko Udalak Santana jaierarako egitarauaren azala. Mendaroarrentzako lehiaketa da, eta lanak maiatzaren 24rako aurkeztu behar dira, udaletxean. Lanarekin batera, kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia eraman beharko dira. A4 neurrian egindako edozein kolore eta motako lanak onartuko dituzte, baina honako esaldi hau agertu beharko da azalean derrigorrez: *Mendaron, 2013ko Santana Jaiak Uztailaren 24tik 28ra*. Lanak aurrez argitaratu gabeak izan behar dira, eta epaimahaiak maiatzaren 31rako emanango du irabazlearen izena. Aisia Deba Hotolean bonux relax-gastronomikoarekin sarituko dute irabazlea.

## Julia Agirre, Gipuzkoako Karting Kopako txapeldun

Julia Agirrek hirugarren urtez jantzi du txapela Gipuzkoako Karting Kopa txapelketan (2010ean eta iaz irabazi zuen). Foru Aldundiak eta Vilarriño Motorsport enpresak antolatutako txapelketan, 12 eta 15 urte arteko 65 neska-mutilek hartu zuten parte eta Julia Agirre nagusitu zen. Hirugarrenez irabazi du, baina aurtengo garaipena "oso garrantzitsua" izan dela nabarmendu du Juliak: "Aurrera jarraitzeko kemena ematen duten garaipenetakoa da, diru arazoak dirrela-eta karting txapelketa gutxitan izan dudalako parte hartzeko aukera".



## Itziar Mugika

Hamazazpi urtez Mendaroko erizaina izan da Itziar Mugika. Joan zen eguaztenekoa izan zuen bere azken lan eguna herrian, eta nabaria zen hori kontsultategian. Denek nahi zuten agurtu. “Hunkituta nago. Oso harreman polita sortu da gure artean, eta agur esatea ez da erraza”, adierazi zion BARRENI elkarrizketa hasi aurretikoan. Badoa, baina Trinitateetan itzuliko dela agindu du.

Ainara Argoitia



## “Oso gustura etorri naiz beti lanera, eta horrek dena esaten du”

Erizaina zara ogibidez, baina Mendaron erizaina barik Itziar zara zu. Nola daramazu kontu hori?

Harrigarria egiten zitzaidan hasieran. Hemen goi oso ezberdina da. Hirian edo herri handi batean asko jota erizainaren abizenaz gogoratzen da jendea, baina herri txiki batean, eta konkretuki hemen, Mendaron, tratua askoz hurbilagokoa da. Herriaren ezaugarriak egiten dute hori, baina batzuetan profesionalok geuk ere bai. Iruditzen zait batzuetan geuk jartzen dugula distantzia, konpromiso handirik ez hartzeko. Batzuetan beldurra ere ematen du: noraino sartuko naizen, gai izango naizen behar bezala erantzuteko...

Zenbat eta informazio gehiago izan orduan eta konpromiso estuagoa hartu behar duzulako pertsona horrekin. Baina, hemen, hori saihestea ezinezkoa da. Baloreen krisia esaten den hori? Bada, hori. Nik neuk nahiago dut hartueman gertukoagoa. Neka-garriagoa da, jakina, baina askoz aberatsagoa ere bada. Jakitea kontsultara tentsioa hartzeraz datorkizun pertsona horrek zer duen, zer bizi duen, momentu txarra ari den pasatzen... hori dena ezagutzea garrantzitsua da, benetan behar duen laguntasuna eskaintzeko. Dena ez dutelako botikek sendatzen. Horixe da, gainera, Osakidetzako protokologo guztietan egiteko esaten dena.

Konfidentziak kontatzeko lekua bihurtu da hortaz kontsulta.

Batzuetan, bai. Hitz egiteko behar handia du jendeak. Bizitza azkar doa guztiontzat, eta askotan ez dugu behar beste denborarik hartzen geure buruarentzako eta ezta gehien maite ditugunentzako ere. Eta gertutasuna eskaintzean, pertsona zabaldu egiten da. Bakardadearekin lotutakoak dira gaur egungo gaixotasun larrienak. 40-50 urte bueltako emakume asko, adibidez, galduta sentitzen dira. Lortu dute ustez bizitzan lortu behar zuten, baina noraezean sentitzen dira. Gizonetakoak, oro har, beste modu batekoak dira. **Gazte iritsi zinen Mendarora. Zein izan zen**

### **ordura arteko zure esperientzia?**

Erresidentzian lan egiten nuen larrialdietan, eta hango tratua oso hotza zen. Erreta bukatu nuen, eta orain, berriz, poz-pozik noa Mendarotik, oroitzapen goxoekin. Hona etorri aurretik, hainbat herri eman zizkidaten aukeran, tartean Irun. Etxetik gertuago nuen Irun, noski, baina bolada hartan hain nengoen erreta nire aurreko esperientziarekin, balio handiagoa eman niola herri txiki batek eskaintzen duen gertutasunari lanpostua etxetik gertu izateari baino. Eta ez naiz damutzen. Nire aurreko lantokian lankide asko nituen, baina sarri bakarrik sentitzen nintzen. Nork berea egitera mugatzen ziren asko. Hemen, aldiz, askoz talde txikiagoa izan dut, baina giro ezinhobea. Sekula ez naiz bakarrik sentitu.

### **Nola oroitzen duzu zure lehenengo eguna?**

1996ko urtarrilaren 2an hasi nintzen. Negua zen, eta Gabon egunak izanda, jenderik ez zebilen kolean. Non nengoen ere ez nekien. Edadeko gizon bat topatu nuen kolean eta berak lagundu zidan anbulategira. Iritsi nintzen momentutik konturatu nintzen Mendaro ezberdina zela. Angela nire aurreko erizainaren izena zuten denek buruan sartuta, eta Angela deitzen zidaten neuri ere askok. Badakit Angelak zer nolako pena hartu zuen Mendaro utzi behar zuela jakin zuzenean, neu ere halaxe sentitzen naizelako egunotan. Hunkituta nago, eta badakidala noanetik oso gogorak ari zaizkit egiten egunak. Denak agurtu nahi ditut, eta kosta egiten zait emozioari eustea ere. Lanean jardun naiz hemen, baina oso gustura etorri naiz beti, eta horrek garai hauetan dena esan nahi du.

### **Angela lanik gabe gelditu zen. Zure kasuan zeuk eskatu duzu lekuz aldatzea, besteak beste etxetik gertuago egon ahal izateko.**

Bai, eta bitxia da, baina aste honetan badaukat halako kezka moduko bat ere. Askotan pentsatu dut zer zaila izango den hemen besteko giroa topatzea. Etxera hurbilduko naiz, baina auskalo zer topatuko duan! Hemen talde txikia gara, eta oso ondo hartuta ibili gara beti. Aspaldi esan zidan batek pertsona batek lana uzten duenean gehienetan behintzat ez dela izaten lan karga handia izan duelako, baizik eta talde giro egokia topatu ez duelako. Eta halaxe da.

Hemen jaso dudan maitasuna eta laguntasuna izugarria izan da. Zorretan bezala nago. 'Nos vas a abandonar' esaten didate, eta bihotza urratzen didate. Beste pertsona bat etorriko da orain, eta badakit mendarorren gustukoa izango dela, nik hemen uzten dudan hau topatzen duenean, profesional horrek, edozein dela ere, bere onena emango duelako.

## **“Pediatrian ordutegi duinagoa eskatu behar dugu, eta baliabide gehiago”**

### **17 urte egin dituzu Mendaron. Zerk harritu zaitu gehien?**

Gozamen hutsa izan zen Mendarora iristea. Gogoan daukat tentsioa hartu eta denek eskerrak ematen zizkidatela, eta horrekin harrituta gelditu nintzen. 'Baina nola liteke niri eskerrak ematea?' galdetzen nion neure buruari. 'Neure lana baino ez dut egin-eta!'. Nire bizitzako aro garrantzitsua izan da. Hemen hazi naiz ni. Iritsi nintzenean ume bat nintzen eta askotan esaten diot neure buruari: 'Nola egiten nuen nik adineko baten aurrean jarri eta aholkuak emateko? Zer nolako atrebentzia! Nola liteke, baina!. Berak eman behar dizkit aholkuak, adin horretara iritsi den moduan iristeagatik!' Askok dakigula iruditzen zaigu, baina beharbada ez dakigu bizitzen. Bizitza astuna egiten zaigu. Zergatik?. Medikuntzako profesionalok ere txipa aldatu behar dugu. Guk ez dugu dena sendatzen, baina gaixok eta guk, denok elkarrekin, asko egin dezakegu pertsonak hobeto sentitzeko.

### **Nolakoak dira mendaroarrak?**

Batetik, jakin-min handikoak. Baina horrek baino gehiago elkartasunari ematen dioten garrantziak harritu nau. Hemen badago, adibidez, elkarte bat [Sendi Anaitasuna] herrian hiltzen den pertsonaren hileta gastuetan la-

guntzen duena. Beste inon ez dut halakorik ikusi. Hori da benetako elkartasuna. Eskuzabalak eta esker onekoak dira.

### **Jakinmin handikoak direla diozu. Nora zozzen jakin nahiko dute orain.**

Astigarragara joango naiz, aldi luze baterako. Lekualdatze-lehiaketa egin gabe dago oraindik, eta ikusi beharko da hor plazarik lortzen dudala ala ez. Momentuz, Astigarragan egongo naiz, eta lekualdatze-lehiaketa hori egin bitartean, Astigarragako giroa gustatzen ez bazait Mendarora bueltatzeko aukera ere badut berez.

### **Zeintzuk behar ditu Mendaroko anbulategiak?**

Gurea kontsultategia da, eta Soraluzerekin, eta Elgoibarrekin batera unitatea osatzen dugu, eta askotan zaila da gure beharrak entzunaraztea. Mendaro txikia denez, beti atzean lagatzen dute. Batetik, ulertzekoa da, baina oso mingarria ere bada, mendarorrek zerga berberak ordaintzen dituztelako. Behin edo behin galdetu izan digute zer nolako beharrak ditugun, baina gero ez digute aintzat hartu, eta hori eskatu izan duguna ez dela inoiz luxuzko ezer izan.

### **Zerbitzu batzuk kritikatu izan dituzu, pediatriakoa kasu.**

Pediatria Mendaron ez dago behar bezala sartuta, eta are gutxiago kontuan izanda zenbat ume jaiotzen diren azken urteotan. Hauteskundeetan agindu zuten pediatria zerbitzua ekarriko zutela eta prestatu zuten lekua ere goian, baina umea sano dagoenerako bakarrik da; ume osasuntsuen jarraipena egiteko. Eta hori baino gehiago behar da. Jarri zuten ordutegia ere adierazgarria da. Egurdiko hori oso ordutegi txarra da umeen arretarako. Nik uste dut hori hobetzearen alde borrokatu behar dugula. Ordutegi duinagoa eskatu behar dugu, eta baliabide gehiago. Hori ez da pediatria zerbitzua. Hori partxe bat jartzea da. Gurasoari kezkatzen diona da umea gaizki dagoenean sendagilea eskura izatea. Gauza bat dauka ona, hala ere. Mendarora datorren pediatra Elgoibarko bera dela eta oso jatorra eta arduratsua dela, gainera. Taldean lan egiten daki, eta oso arretatsua da.

# Morkaikoren egun handia



**Mendizaletasunak batuko ditu bihar ume zein nagusiak, Morkaikoren Egunean. Elgoibarko Mendi Itzulia egingo dute nagusiek, eta txikienek, berriz, Itzulitxoa. Eguerdian Finalista Eguneko dominak banatuko dizkiete umeei, eta horren ostean, elkarrekin bazkalduko dute Kalegoen plazan. Aurten, gainera, Morkaikok 70 urte beteko ditu, eta Pako Iriondo omenduko dute.**

Ainhoa Andonegi

**H**irugarren edizioa izango du bihar Morkaikoren Eguna. 2011n erabaki zuten Morkaikoko arduradunek Elgoibarko Mendi Itzuliarekin batera umeentzako irteeraren bat antolatzea, eta Finalista Eguna ere sartu zuten egitarauaren barruan. Mendizaletasunaren bueltan ume zein nagusiek bat egiten duten eguna izatea lortu du Morkaikoren Eguna. Andoitz Agirregomezkorta elkarteko presidentea pozik agertu da orain dela hiru urte hartu zuten erabakiarekin: “Lehenengo edizioan arrakasta handia izan zuen Morkaikoren Eguna, eta jende guztia oso gustura geratu zen. Ume zein gurasoek izugarri gozatu zuten”. Elgoibarko Mendi Itzuliak eta Itzulitxoak bat egiten dute Aiastian, eta une hori oso polita izaten dela esan du Andoitzek: “Itzulitxoa egitearen ideia bazkide batek eman zigun, eta izugarri gustatu zitzaigun. Mendizaletasuna umetatik lantzea oso garrantzitsua da”.

38 kilometroko ibilbidea dauka Mendi Itzuliak, eta antolatzaileen arabera, mendian apur bat ibilita egotea komeni da itzuli hori egiteko. “Luze egiten da”, esan du Andoitzek. Hala ere, ihesbi-deak ere badituela nabarmendu du, eta nahi duenak Altzolan edo Aiastian ere laga dezakeela proba.

Azken urteetan 500 bat lagunek hartu izan dute parte Morkai-


koren Egunean, eta euririk egiten ez badu, biharko ere partaide-tza handia espero dute antolatzaileek. Dena prest dago mendizaletasunaren jaia ospatzeko.

## Egitaraua

- 6:00 Elgoibarko Itzulia, Kalegoen plazan.
- 9:00 Elgoibarko Itzulitxoa, Kalegoen plazan (10:00etan San Pedrotik).
- 12:00 Elgoibarko umeek Aiastian mokadutxoa.
- 13:00 Elgoibarko Itzuliko bazkariak hasiko dira, Elizako arkupe-etan izango da.
- 13:30 Finalista Eguneko dominen banaketa. Ondoren, Pako Iriodori omenaldia.
- 14:00 Umeentzako bazkaria, Elizako arkupeetan.
- 15:00 Atxutxiamaikaren jolasak.
- 17:00 Familia erretratua.

Oraindik izena eman ez dutenek bihar bertan ere izango dute aukera, Kalegoen plazan bertan. 18 urtera artekoek 10 euro ordaindu beharko dituzte (bazkideek 7 euro) eta 18 urtetik gorakoek 17 euro (bazkideek 13 euro).





PAKO IRIONDO Morkaikoren Eguneko omendua

## “Herritarrentzat gertuko elkarte da Morkaiko eta nik bihotzean izango dut beti”

Morkaiko Mendizale Elkarateak 70 urte egingo ditu aurten. Hori dela eta, Morkaikoren Eguna ospatzearekin batera, elkartearen sortzaile eta sustatzaileetako bat omenduko dute arduradunek: Pako Iriondo. Morkaikoren sorreratik gaur egunera arte elkartearen bueltan jardun du lanean Pako Iriondok, eta urte horietan guztietan eginiko lanagatik esker ona erakutsiko diote bihar.

### Orain dela 70 urte sortu zenuten Morkaiko Mendizale Elkaratea. Nola gogoratzten duzu garai hura?

1940an hasi nintzen ni mendian, Elgoibarko Eup taldearekin. Gailurrera iristen ginenean *eup* garrasi egiten genuen, eta halaxe sortu zen taldea, baina ez ziguten laga izen horrekin erregistroan sartzen, eta Morkaiko izena jarri genion. Garai hartan abarkekin eta praka panazkoekin joaten ginen mendira; ez zegoen mendirako jantzirik ere. Hemen inguruko mendietara joaten hasi ginen. Gu izan ginen Piriniotara irteera antolatzen lehenengoetarikoa, 1955ean. Garai hartan ez zegoen horrelako ohiturarik, eta begira, gaur arte iraun du Morkaikok. Eta sekula ez dugu eduki ezbehar larririk urte hauetan. Nahigaberen bat izan denean denok bat izan gara beti. Elkarte oso serioa da, eta oso ondo egiten dute lana. Herritarrentzat gertuko elkarte izan da, eta nik bihotzean izango dut beti. Jaio eta hurrengo egunean egin nuen alaba Morkaikoko bazkide.

### Elgoibarren hasi zinen, baina curriculum oparoa daukazu mendizaletasunean.

72 urte eskaini dizkiot, eta beti musutruk. Erakunderen batek zailtasunak zeuzkan bakoitzean deitzen zidaten, hura suspertzen laguntzeko. 1971n aukeratu ninduten Euskadiko Federazioko presidente, eta neu izan naiz demokratikoki aukeratutako lehenengo presidentea. Beste mota batzuetako lanak ere eskaini izan dizkirate, baina nire lehentasuna mendia izan da.

### Zer eman dizu mendiari?

Asko eman diot mendiari, baina mendiak dena eman dit niri. Natura da niretzat munduan dagoen gauzarik ederrena. Mendian ibiltzen jakin egin behar da, eta ez zaio inoiz errespetua galdu behar mendiari. Entrenamendua ezinbestekoa da mendian ibiltzeko, nekeak istripu asko ekartzen dituelako. Mendiari errespetua galtzen dionak jai dauka. Mendian ibiltzeko onena hiruko taldeak dira. Bat nekatzen bada, beste bien artean laguntza emateko aukera eskaintzen du horrek. Talde handiak azkenean banatu egiten dira. Erritmo desberdinak jartzen ditu jendeak eta hor hasten dira arazoak. Mendian ibiltzeko gidari ona edukitzea oso garrantzitsua da.

### Zer da zuretzat Morkaikoren Eguna?

Egun berezia da, festa bat. Umeei dominak jartzea eta eurekin erretratuak ateratzea polita izaten da eta beraiei ere gustatzen zaie domina nik jartzea. Goxo-goxo hartzen ditut urteak eta gustura egoten gara.

### Gaur egun nola bizi duzu mendia?

Txorimalokeriarik egitea ez zait inoiz gustatu, eta orain ere ez ditut egiten. Ez daukat zerbait egin gabe uztearen damurik eta horrek lasaitasun handia ematen dit. 87 urtera noa, eta lasai-lasai ibiltzen naiz, neuri komeni zaidan moduan. Mendia gauza zoragarria da, baina mendian ibiltzen jakin egin behar da. Kirol guztietan bezalaxe, mendian ibiltzen ez dakienak ez du gozatzen. Kontzientzia oso trankil daukat, eta oso pozik nago egin dudan guztiarekin.

## PAKO IRIONDO (1926-10-13)

- 1940an hasi zen mendian, Elgoibarko Eup mendi taldearekin.
- 1943an Morkaiko Mendizale Elkaratearen sortzaileetako bat izan zen. 1953tik 1959ra arte bera izan zen elkarteko presidentea.
- 1958an Euskal Mendizaletasunaren lehen kongresua egin zuten Arraten, eta Mendi Federazioarekin elkarlanean, Pako izan zen antolatzaileetako bat.
- 1971n Euskadiko Mendi Federazioko presidente kargurako hautagai izateko eskatu zioten. Lau hautagai zeuden, eta 554 botoekin Pako Iriondo aukeratu zuten. Jose Maria Regilek (Bilbo) 105 boto jaso zituen; Teodoro Fuentesek (Bilbo) 544 eta Juan Ignacio Llorentek (Gasteiz) 27. Demokratikoki aukeratutako lehen presidentea izan zen. 1976an laga zuen kargua, 22.500 federaturekin (kargua hartu zuenean, 9.000 zeuden).
- 1975ean urrezko domina eta diploma eman zion Espainiako Mendi Federazioak, presidente karguan egindako lanagatik.
- 1986an bigarren aldiz aukeratu zuten Euskal Mendi Federazioko presidente, eta 2000. urtera arte egon zen postu horretan.
- 1993 eta 1996 urteen artean Espainiako Mendi Federazioko lehendakari ordea izan zen.
- Gaur egun Espainiako Mendi Federazioko lehendakariaren aholkularia da, eta Euskal Mendi Federazioko ohorezko lehendakaria.

## Edukiontzi marroiak zabaltzeko txartel pertsonalizatuak banatuko ditu Elgoibarko Udalak, gaurko giltzen orde

Hondakinen kudeaketa “egokian” pausoak emateko proposamena egin dio Bilduk EAJri

**E**dukiontzi marroiak zabaltzeko txartel pertsonalizatuak banatuko ditu Elgoibarko Udalak urtea amaitezako (gaur egun giltza batekin zabaltzen dira). Txartel horiek barnean duten txipari esker, jarraipen zehatza egiteko aukera izango du Debabarrenako Mankomunitateak. Hau da, nork zenbat birziklatzen duen jakiteko aukera izango du. Era berean, jakinarazi dute hondakin organikoak jasotzeko erabiltzen diren poltsa biodegradagarriak makinetan eskuratu ahal izango direla, udatik aurrera. Herriko lau puntu esanguratsutan jarriko dituzte makinak.

### EHBilduren proposamena

Ingurumenarekin errespetuz jokatu eta hondakinen gaiari “aterabide egokia” emateko egiteko asko dagoela adierazi du EHBildu Elgoibarrek eta “elkarrekin lan egiteko” proposamena aurkeztu dio EAJri. Helburua zein izan behar den garbi dute: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean jasotakoa betetzea. Hau da, 2016rako hondakinen %60 biltzea gaika, eta 2010rako hondakinen %75. EHBildu Elgoibar koalizioak aurkeztutako proposamenak hiru puntu nagusi ditu: hondakinen gaikako bilketa sistemari helburu zehatzak ezartzea beharrezkoak diren bitartekoak jarri, emaitzen jarraipen zuzena eginez eta hala badagokio neurri zuzentzaileak aplikatuz. Altzolan horrelako esperientzia pilotu bat bultzatzea bertan sortzen den hondakin organiko guztia konpostaren bitartez kudeatzeko, beti ere, altzolarrek baietza ematen badute. Guzti hori adosteko, praktikan jartzeko eta jarraipena emateko Hondakinen mahaia eratzea proposatu dute.

### Ukitu galizarra hartu du Elgoibarrek asteburuan

Galiziako ohitura eta zapoeren bilgune izan da asteburuan Elgoibar. Izan ere, herriko Galiza etxeak Semana das letras galegas jaiak ospatu ditu. Aurten Roberto Vidal Bolaño aktore eta idazle galiziarren omenez antolatu dituzte jaiak. Urtero bezala, musika eta dantzaz gain, Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera izan dute Aita Agirre plazara hurbildu diren lagun guztiek.



### Presoen alde, plazak betetzera deitu du Herrirak maiatzaren 18rako



Bakea lortzeko bidean, presoen eta erbestean dauden herritarren egoeran arreta jartzea ezinbestekoa dela ohartarazi du Herrirak, eta lehen egitekoen artean haien giza eskubideak errespetatzea exijitu du: presoak Euskal Herrira-

tzea, gaixotasun larriak dituztenak libre lagatzea, kartzela zigorren luzatzeak amaitu eta *de facto* bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten neurriak derogatzea. Aldarrikapen horiei bultzada emateko eta Espainiako eta Frantziako gobernuari pausoak ematea exijitzeko, plazak betetzera deitu dute maiatzaren 18rako. Elgoibarren, 12:00etan batuko dira Kalebarren plazan, eta 12:30ean talde-argazkia aterako dute han bertan. Ondoren, 15:00etan, elkartasun bertso bazkaria egingo due (Txartelak Iturri eta Jai-Alai tabernetan jarri dituzte salgai) eta eguna bukatzeko, musika saioa izango da Lekuederreko karpan.

## Irudia Protesta irudiak

Elgoibarko Institutuko irakasleek murrizketen kontrako kanpaina hasi dute. Azken urteotan izandako murrizketek langileen soldatetan eta lan-baldintzetan eragin handia izan dutela salatu dute, eta ohartarazi dute murrizketa horiek ikasleei ere eragiten diela. "Murrizketek kolokan jartzen dute ikasleek jasoko duten hezkuntzaren kalitatea. Etorkizuna jokoan dute", salatu dute. Ikasgeletako ratioa, hau da, irakasle kopurua, igo egingo dela esan dute, eta ordezkapenik apenas egingo dela. Era berean, familiei eskaintzen zaizkien diru-laguntzak ere murriztu egin direla ohartarazi dute, eta ikastetxeek funtzionatu ahal izateko behar dituzten baliabideak, obrak eta bestelako gastuetarako dirua, besteak beste, nabarmen gutxitu dela. Murrizketen kontra daudela adierazteko, barixakuro kamiseta beltza jantziko dute eskolan.



ELA eta LAB sindikatuek egindako deialdiari jarraituz, Gipuzkoako zahar etxe eta eguneko zentroetako langileek bost eguneko greba egin zuten joan zen astean, eta Elgoibarren ere bat egin zuten deialdi horrekin. Joan zen eguenean elkarretaratzea egin zuten langileek, San Lazaro egoitza aurrean. Hitzarmen "duina" eskatzen dute. ELA sindikatuko ordezkari Iñigo Zubeldiak halaxe adierazi zuen *BERRIA* egunkariari egindako adierazpenetan: "Hiru dira grebara deitzeko arrazoiak. Batetik, hobekuntza klasikoak daude, soldataren igoera eta edukien ingurukoak. Bestetik, guretzat oso garrantzitsua da Espainiako Gobernuaren erreformak ez izatea eraginik Gipuzkoako adinekoen egoitzetan. Hirugarren aldarrikapena ere erreformarekin lotuta dago, eta sinatzen dugun akordioa blindatua gelditzeko eskatzen dugu". Datozen egunetan patronalarekin akordiorik ez badago, maiatzaren 13rako greba mugagabera deituko duela iragarri du ELAk.



## ONCEk 20.000 euro banatu zituen Elgoibarren zapatuan

Elgoibarren egokitu zen ONCEren zapatuko sari nagusia. Eibarko Bulegotik jakinarazi dutenez, Kalegoen plazan egon ohi den Rebeca Cerezueta kupoi saltzaileak saldu zuen kupoi sarritua (33.743 zenbakia). TPV bidez ateratako kupoi elektronikoa izan da saritutakoa, eta jabeak 20.000 euro irabazi ditu.



## Gernika Saria Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurentzat

"Bakeari egindako ekarpenagatik" saritu zituzten Gernikan Arnaldo Otegi ezker abertzaleko buruzagia eta Jesus Egiguren PSE-EEko presidentea. Sari banaketa ekitaldian Jose Mari Gorroño Gernikako alkateak esan zuen "elkar ulertzea" bultzatu dutela bai Egigurenek eta bai Otegi, "ideologikoki elkarrengandik urrun egon arren". Otegi preso dagoela eta, Jesus Egigurenek uko egin zion saria berak jasotzeari eta haien alabek, Miren Egigurenek eta Garazi Otegi, jaso zuten saria.

## 'Gure seme-alaben elikadura: ohitura onak erakusten' hitzaldia hilaren 15ean

*Gure seme-alaben elikadura: ohitura onak erakusten* izenburuko hitzaldia antolatu du Kalamua guraso elkar-teak maiatzaren 15erako. 16:15ean izango da hitzaldia, Elgoibarko Herri Eskolan. Elgoibarko osasun etxekeo pediatria zerbitzukoek eskainiko dute, eta, berez, LH1 eta LH2 bitarteko umeen gurasoei zuzenduta dago. Hitzaldia irekia da, baina aurrez izena emateko eskatu dute antolatzaileek, lekua antolatzeko. Harremanetarako posta elektronikoa bat utzi dute: [kalamua@googlegroups.com](mailto:kalamua@googlegroups.com).

# Espainiako Auzitegi Konstituzionalak tramiterako onartu ditu 'Bateragune auzikoeek' jarritako babes helegiteak

Epaiairen betearazpena eteteko eskaera aztertzeke atal berezi bat ireki beharko du orain

**E**spainiako Auzitegi Konstituzionalak tramitera onartu zituen atzo *Bateragune auziko* presoek ezarritako babes helegiteak. Edizio hau ixteko orduan iritsi zen albistea Madrildik. *Bateragune auziko* presoen defentsako abokatuek iazko ekainean jarri zutuzten helegiteak, Auzitegi Nazionalak jarritako zigorraren kontra. Auzitegi Nazionalak hamarna urteko kartzela zigorra ezarri zien, ETArek zuzendaritzako kide izatea leporatuta. Ondoren, Auzitegi Gorenak epai hori berretsi zuen, nahiz eta zigorrak murriztu. Otegi-ri eta Diezi hamar urtetik sei urte eta erdira jaitsi zien zigorra, eta Jacinto, Rodriguez eta Zabaletari zortzi urtetik seira.

Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jazinto, eta Arkaitz Rodriguezen abokatuek lau motibo nagusi argudiatu zituzten

joan zen ekainean Konstituzionalean babes helegitea jartzean: errugabetasun printzipioa urratzea, inpartzialtasunaren printzipioa urratzea, akusazio printzipioa urratzea eta justizia eraginkorrerako eskubidea urratzea. Babes helegitearekin batera, defentsak Gorenaren epaiaren betearazpena bertan behera uzteko ere eskatu zuten. Auzia aztertzen den bitartean zigor epaia eteteko eskatu zuten, babesa emanez gero inputatuei egindako kaltea ezin izango litza-tekeelako konpondu. Izan ere, bost inputatuak preso daude. Epaiairen betearazpena bertan behera utziz gero, bost presoak aske geldituko lirakeke. Helegiteak tramitera onartuta, atal berezi bat irekiko du epaiaren betearazpena eteteko eskaera aztertzeke, eta aldeei jarrera agertu eta argudiatzeke aukera emango lieke.

## Udalak 3.000 euroekin lagunduko du IMHren Goazen plana

Egoibarko Udalak 3.000 euroekin lagunduko du aurten IMHren Goazen proiektua. Duela hamar urte sortu zuten Goazen, IMHn euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko urratsak emanez erreminta makinaren sektorean eragiteko. Eta planak eman ditu emaitzak. IMHko arduradunek nabarmendu dute euskararen presentzia bermatua dagoela IMHko prestakuntza eta zerbitzu guztietan: heziketa ziklo, ingeniari duala, prestakuntza iraunkorra, ekinberri proiektugintzan eta ETE-entzako berrikuntza zerbitzuen Asmaola negozio unitatean, besteak beste. 2013rako Plan Estrategiko Komertzial berriak eta eraldaketa prozesuak ekarriko dituen ekintzetan euskararen erabilera uztartu nahi du IMHk.



Gregorio Larrañaga eta Karmen Juaristi  
1963ko maiatzaren 11n ezkondu ziren

### 50 URTE, alkarri BAI esan zeniotela.

Bai, alkar maitatzia-ri.  
Bai, familia bat osatziari.  
Bai, etxia eta bizitza partekatziari.

Eta gehi ere baietz diogu:

Norrelako aita eta ama izatea ohore bat dalako.  
Bilhotik gatozenian alabatzen hartzen gaituzuelako.  
Aitxizki-amama maitagarriak zeratelako!

BAI, bixar merezi bezela ospatuko dogu,  
zuek

guk,

eta maitte zaitzuegun guztio,

Etxekuk

# IBAN BARRENETXEA

Ilustratzailea

**Diseinatzaile grafiko ofizioa albo batera utzi eta azken hiru urteotan ilustrazio lanetan dihardu Iban Barrene-  
txeak. Hamabi bat liburu ilustratu ditu dagoeneko, eta horietatik bi berak idatzi ditu gainera. Bi urtetan jaso du Euskadi Literatur Saria ilustrazio alorrean, eta poli-  
liki-poliki bidea egiten ari da literaturan. Gaur zortzi jarriko ditu ikusgai bere lanak Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.**

## “Irudiekin idaztea da ilustratzea”

**Gaztelaniazko haur eta gazte literatura alorrean Euskadi Saria jaso du-  
zu bi urtez jarraian. Zer eman dizu sari horrek?**

Euskadi Saria jasotzea ohore handia da, eta gainera, sari ekonomikoa hori oso ondo datorkit lanean jarraitu ahal izateko. Proiektu propioak lantzeko aukera eman dit Euskadi Sariak. Enkarguzko lanak egiten ditut beste idazle batzuentzat, baina norberaren proiektuak lantzeko arrisku apur bat eskatzen du eta apustu hori egiteko dirua behar-beharrezkoa da. Gu ez gara kirolariak edo aktoreak, eta gurea ez da benetako ospea, baina sariak aurrera jarraitzeko aukera ematen dute, eta hori da saririk handiena. Literaturaz bizi ahal izatea da saririk onena.

**Liburuak ilustratzen hasi zinen, eta orain idatzi ere egiten dituzu.**

Hamabi bat liburu ilustratu ditut dagoeneko. Horien artean Lewis Carrollen *Alicia* klasikoa edota *Edurne Zuri* ipuina daude, eta badira bi nik neuk idatzi eta ilustratutakoak: *Bombastica Naturalis* eta *El cuento del carpintero*. Une honetan hirugarrena idazten ari naiz. Pozik nago, izan ere sari gehienak nik idatzitako lanekin eskuratu ditut.

**Afizio bezala hasi zena, beraz, orain zure ofizioa da.**

Azken hiru urteotan literatura da nire bizimodua, eta pozik nago. Sariak eskuratu ditut eta kritika onak jaso ditut. Azken lanak izan duen harre-  
raren arabera baloratzen zaituzte lanbide honetan, eta uneoro erronka berriak gainditzen egon behar izaten gara. Kirolariak bezala, partida ba-  
koitza irabazi behar izaten dugu, mailari eusteko. Literaturaren mundua oso bizkorra da, eta liburuak oso bizitza laburra dute; tirada txikiak egi-  
ten dira eta bi urtean liburu bat desagertu egiten da liburu-dendetatik... Uneoro berritzen egon behar izaten dugu. Nire etxean daukat estudioa, eta hantxe egiten dut lan. Horrek bere alde onak eta txarrak ditu, jaki-  
na. Askotan 24 ordu eskaintzen dizkiot lanari. Literaturan, artean edo musikan sartzen garenak badakigu mundu hau horrelakoa dela. Edo-  
zein unetan eta edozein tokitan etortzen zaizu inspirazioa eta une ho-  
riek aprobetxatu egin behar dira. Uneoro pentsatzen eta imajinazioa lantzen egoten gara.



**Zuek ere igarriko zenuten bada krisiaren eragina, ezta?**

Gure sektorea beti egon da krisian. Etxebizitzaren burbuila egon da, bai-  
na literaturaren burbuila ez da inoiz existitu. Lehen egoera zaila bazen,  
orain askoz zailagoa da. Kulturaren murrizketa handiak egon dira, eta ho-  
rrek eragin digu, jakina. Eta zaletasuna lanbide bilakatzen denean, are  
konplikatuagoa da. Dirua irabazi behar duzula konturatzen zara, eta  
ogibidea serio hartu behar dela.

**Marraztea eta ilustratzea bereiztu egiten dituzte adituek. Zein da des-  
berdintasuna?**

Marraztea edozein irudi egiteari esaten zaio, eta ilustratzea, aldiz,  
testuinguru jakin baten barruan egiten da. Normalean testu batekin  
joaten dira irudi horiek, eta liburuaren zati dira. Marrazki bat izan dai-  
teke independentea, baina ilustrazioekin sekuentzia bat osatzen du-  
gu, eta irudien bidez mezu bat transmititzen dugu. Azken batean, li-  
teraturaren atal bat da; irudiekin idaztea da ilustratzea.

**Gaur zortzi inauguratuko duzu erakusketa. Zer ikusiko dugu?**

Ongarrik eta Donostiako Lugaritz kultur aretoak antolatu dute era-  
kusketa, eta nik idatzitako bi liburu horiek izango dira erakusketaren  
oinarria. Irudi horiek ez dira marrazki soilak, ilustrazioak dira eta eu-  
ren zentzua ulertzeko ezinbestekoa da testuingurua. Horregatik, li-  
buruak ere egongo dira erakusketan. Beste irudi batzuk ere jarriko  
ditut ikusgai, baina bereziki nik idatzi eta ilustratutako lanak bilduko  
ditut erakusketarako.

## Ehundik gora saxofoi-jotzaile batuko dira bihar, hilak 11, Elgoibarren

Arratsaldean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian

**H**amaikasax eguna ospatuko dute bihar Elgoibarren. Hamar musika eskolatak 102 saxofoi-jotzaile batuko dira herrian. 12:30ean kalejiran irtengo dira, eta ondoren, 14:00ak aldera, elkarrekin bazkalduko dute guztiek Leku-Ederreko karpan. Arratsaldean, berriz, 16:30etik aurrera kontzertua izango da Herriko Antzokian. Larrabetzuko eta Erandioko musikariek hasiko dute kontzertua. Hiru pieza joko dituzte Haendelen *Hornpipe*, Mozarten *Marcha Turca* eta Bob Marleyren *Don't worry be happy*. Errenterial Musikalekoen txanda izango da gero, eta haien segidan arituko dira Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolakoak. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* eta D.J. Michaten *Easy Haka* kantak joko dituzte. CNR Baiona eskolakoak eta Legazpia, Zumaia, Azpeitia eta Zestoako Eskolakoek jarraituko diete elgoibartarrei, eta Musikenekoek emango dute agurra.

## Lakarrin, Zuberoan, izan da elgoibartar talde bat Maskaradak ikusten



32 lagun inguru joan ziren Elgoibartik Lakarrira (Zuberoa), Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean antolatutako Maskaradak ikusteko irteeran. Goizeko bederatzietan irten ziren Elgoibartik, eta eguna Lakarrin pasatu ondoren, 23:00ak aldean bueltatu ziren etxera. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazien ere, oso gustura itzuli zirela adierazi dute antolatzaileek. Eguna zuberotarren dantzekin, barrabaskeriekin eta kantuekin bete ondoren, etxerako bidea kantuan egin zuten elgoibartarrek.

## Arrate Illaro eta Pello Arando gailendu dira Mendaron Plazatik Gaztetxera txapelketan

Arrate Illaro eta Pello Arando algortarrak nagusitu ziren zapatuan Mendaron jokatu zen Plazatik Gaztetxerako saioan. Ander Zulaika itziartarra eta Andoni Zubiaurre Gorixo mutrikuararren kontra jokatu zuten buruz burukoa algortarrek. Saio horretan Aitzol Urain herriko bertso-lari gazteak ere parte hartu zuen, Josu Urain itziartarra lagun hartuta, eta laugarren sailkatu ziren. Gaur gauean jokatu da Plazatik Gaztetxerako hurrengo kanporaketa, Soraluzeko gaztetxean. Afalostean hasiko da bertso saioa. Lau bikote lehiatuko dira: Eneko Beretxina-ga eta Maddi Gallastegi, Paula Amilburu eta Maddi Ane Txoperena, Ander Elortegi eta Jon Arano eta Malen Amenabar eta Txaber Ormazabal. Bideoak: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

## Sei elgoibartar Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako finalean

Zapatuan jokatu zuten Billabonan Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako azkeneko saioa, eta primeran aritu ziren gure ordezkariak. Eneko Gonzalezek jantzi zuen txapela bere adinekoen artean eta nesketan fin aritu ziren Maialen Loiola (15. postua), Amaia Astigarraga (10. postua) eta Leire Astigarraga (4. postua). Ligaxka amaitu da beraz, eta finalak falta dira orain. Guztira, sei elgoibartar sailkatu dira finale-rako: Gaizka Uranga, Eneko Gonzalez, Oihane Agirrebeña, Nerea Sasiain, Leire Astigarraga eta Alaitz Egaña. Mutilen finala Errenterian jokatu da, bihar, eta neskena, Legazpin, etzi.



## Gurasoentzako eskulan-tailerra antolatu du Atxutxiamaiak

Maiatzaren 19an izango da ikastaroa, Atxutxiamaiak Plaza Txikian daukan lokalean. Birziklatutako materialarekin eskulanak egiten erakutsiko diete bertan. Zehazki HH4-LH2ko ikasleen gurasoei dago zuzenduta. Goizez izango da ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, eta sei euro balio du izena emateak (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 4 euro). Ikastarora doazen gurasoen seme-alabentzako zaintza zerbitzua ere eskainiko du Atxutxiamai-ka aisialdi taldeak. Interesatuak maiatzaren 13ra arteko epea dute izena emateko. Informazio gehiago: [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) helbidean.

# Elgoibarren ospatuko da Euskal Herriko mintzalagunen eguna, ekainaren 1ean

Maalan herri bazkaria egingo dute, eta tiketak salgai daude dagoeneko Elgoibarko Izarran

**E**uskarak hartuko du Elgoibar ekainaren 1ean, Mintza Egunean. Mintzalagun programako partehartzaileek urtero ospatu ohi dute euren eguna: Mintza Eguna. Aurten, Elgoibarko Izarrak 50 urte betetzen dituela aprobeztatuta, gure herrian batuko dira mintzalagun guztiak. Egun osoko programazioa izango da, eta eguerdian elkarrekin bazkalduko dute hala nahi duten guztiek Ma-

alan jarriko duten karpan. Bazkaritarako tiketak salgai daude dagoeneko, Elgoibarko Izarraren lokalean (Ubitarte, 4, behe). 20 euro balio ditu bazkariak (Entsailada, paella, oilasko errea, sorbetea, kafea, kopa, ardoa, ura eta ogia).

Euskal Herriko txoko desberdinetan Mintzalagun programan parte hartzen duten lagunak egun batez leku bakarrean batzea da Mintza Egunaren helburua. Ha-

la ere, ospakizunetan parte hartzeko ez dago mintzalagun programako partaidea izan beharrik. Nahikoa da ondo pasatze-ko eta euskaraz bizitzeko gogoia izatea.

Euskal Herrian astero-astero 5.500 lagunek egiten dute mintzalagunen ahalgina. Elgoibarren, adibidez, 28 lagun batzen dira astero euskaraz berrikerian egin eta euskarari mingain eta espazio berriak emateko.

## Euskara arloko diru-laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Euskararen erabilera sustatzeko laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak. Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko, barnetegietan euskara ikasteko egonaldiak egiteko, UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko eta Elgoibarko establezimenduetako publizitate errotuluak euskara hutsean jartzeko diru-laguntzak banatuko ditu, besteak beste. Jarduera horietarako eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da. Gehiago ere bada, baina. Lanbide Heziketako prestakuntza euskaraz egiteko ikastetxeentzat diru-laguntzak ere izango dira, eta baita herriko enpresetan euskararen erabilera planak bultzatzeko ere. Horietarako eskabideak irailaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira Udalaren Arreta bulegoan. Informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Udalaren webgunean ([www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)) edota Euskara Sailera deituz edo idatziz lortu dezakezue (943 744 366 / [euskara@elgoibar.net](mailto:euskara@elgoibar.net)).

## Petachos konpainia omendu du Taupadak



36ko gerra ondorenean Elgoibarren antzerkigintzan jardun zuten lagunak omendu zituen Taupada antzerki taldeak joan zen barixakuan, arte eszenikoen agerraldi bukaeraren. Antzerkiaren iraganaren eta orainaren arteko besarkada izan zen. Petachos konpainiako antzezle izandakoak igoarazi zituzten oholtzara eta Angelo Iriondok eskerrak eman zituen guztien izenean.

## Gravelites talde nafarrak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxeko sotoan

Gravelites talde nafarraren kontzertua izango da gaur gauean Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan, 23:00etatik aurrera. Sinuose taldeak antolatu du kontzertua, eta sarrerak hiru euroan jarriko dituzte salgai.

Musika abentura ezberdinetan ibili eta gero sortu zuten Gravelites taldea Iruñea zaharreko hiru lagunak. Taldea osatzen duten hiru lagunak, besteak beste, Granero Distorsion, Lex Misterio edo Astrovandals bezalako taldeetan ibili izan dira. Musikalki Soul punk rock erritmoak jorrotzen dituzte 2011. urte-tik, eta gazteleraz abesten dute (<http://gravelites.bandcamp.com>).

# IMANOL ALVAREZ

Txirrindularia

**Elgoibako Lagun Taldeko txirrindularia da Imanol Alvarez. 15 urte ditu, eta infantiletan sekulako denboraldia egiten ari da aurten. Bost garaipen eskuratu ditu dagoeneko, azkena zapatuan, eta ilusioz da etorkizunera begira. Datorren urtean errepidean lehiatzen hasiko da.**

**“Txirrindularia izan nahi dut, eta badakit gogor egin behar dudala lan”**

**Izugarri ondo hasi duzu denboraldia. Bost bat aldiz igo zara podiumeko goiko mailara, azkenekoz zapatuan.**

Aurten, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako lasterketak irabazi ditut Mendarokoaz gain, eta oso gustura nago, txirrindularitzan bakarrak irabazten duelako eta ez delako erraza izaten. Azkena, baina, berezia izan da. Mendaroko zirkuitoa ondo ezagutzen dut, baina familiako guztiak zeuden han eta proba hasi aurretik oso urduri nengoan.

**Gogoan duzu podiuma estreinakoz zapaldu zenuen eguna?**

Bai. Orain bi urte izan zen, Oñatin. Beti irtetzen naiz irabazteko gogoz, eta orduan ere hala irtengo nintzen, baina egia esan ez nuen espero irabazterik, eta sekulako poza hartu nuen.

**Bost buelta eman zenizkieten industrialdeari zapatuan. Hasieratik, ondo kolokatuta ikusi zintugun, lasterketa buruan. Zein estrategia jarraitu zenuen?**

Lehenengo buelta lasai antzean egin eta bigarren bueltan erasoa jotzea pentsatuta neukan, aurkarietara tartea zabaltzeko, baina ez zidaten laga eta azken unerako gorde nituen indarrak, esprina jokatzeke. Mendaroko industrialdea ondo ezagutzen dut, badakit haitzak zelako mina egin dezakeen, eta abantaila hori behintzat ba-neukan.

**Noiz hasi zinen bizikletan? Eta nondik datorkizu bizikletarako zale-tasuna?**

4 urterekin-edo, baina lasterketetan 10 urterekin hasi nintzen. Nire aita betidanik ibili izan da bizikletan eta probatzera animatu nin-



duen. Probatu nuen, eta gustatu zitzaidan. Anaia ere hasi zen iaz, baina aurten ez dabil.

**Industrialdeetan joketzen dira zuen lasterketak. Datorren urtean, baina, errepidean lehiatuko zara. Non ikusten duzu zure burua?**

Badakit datorren urtean zailagoa izango dudala irabaztea, errepidean lehiatzea gogorragoa izango delako, baina desiatzen nago eguna iristeko. Orain ere ibiltzen naiz errepidean entrenatzen, aitarekin, eta ezberdina da. Normalean Debara edo Mutrikura egiten dugu joan-etorria, arratsaldetan, eta errepidean ez bada, Mendaroko industrialdean entrenatzen naiz. Txirrindularia izan nahi dut, eta badakit gogor entrenatu behar naizela, gaur egun oso talde gutxi daudelako goiko mailatan eta zaila dagoelako aurrera egiten.

**Miresten duzu txirrindulariren bat?**

Bai. Alberto Contador eta Fabian Cancellara. Gertuagokoen artean, Igor Anton Euskaltelekoa ere gustatzen zait.

**Non moldatzen zara ondoen?**

Oraindik ez dakit.

**Zein da igo duzun mendaterik gogorrena, eta zein igoko zenukeen gustura?**

Tourra ikustera joan ginen batean Tourmaleta [2.114 metro] igo nuen errepideko bizikletarekin. Hori izan da gogorrena, baina noizbait Mortiroloa [1.852 metro] igotzea ere gustatuko litzaidake. Telebistaz eza-gutzen dut eta oso gogorra eta polita da.

**Hasi da Giroa. Zein daukazu faboritotzat?**

Samuel Sanchez.



# CD Elgoibarko Erregionalak bere esku dauka mailari eustea

Zumaiako taldearen kontra jokatuko du azken partida, Zumaian

**M**ailari eusteko partida garrantzitsua jokatu zuen joan zen astean CD Elgoibarko Erregionalak Ilintxa taldearen kontra, eta 4-0 irabazi zuten elgoibartarrek. Horri esker, bere esku dauka taldeak mailari eustea. Asteburu honetan jokatuko dute azken partida Zumaiakoren kontra, eta irabazten badute, ez dira mailaz jaitsiko. Garai-pena lortu ezean, Mutrikuarra taldeak egiten duenaren zain egon beharko dira.



## Aitor Arrietak Azpeitiko ralliesprint-ean hartu du parte

Urtebeteko geldialdiaren ostean, martxan da berriz ere Aitor Arrieta elgoibartarra. Zapatuan Azpeitiko ralliesprint-ean hartu zuen parte, txapelketa ofiziala hasi aurretik, autoa nola dabilen probatzeko. 56 partaide izan ziren guztira, eta sailkapen nagusiko hamabosgarren postuan amaitu zuen gidari elgoibartarrak (bere mailan bosgarrena izan zen). Hurrengo lasterketa ekainaren 1ean jokatuko du: Goierriko ralliesprinta.

## Bartzelonako Montcada taldearen kontra jokatuko du Concepto Egilek igoera fasea



Liga txapelketa irabazi ostean, bigarren mailara igotzeko aukera dute,

beraz, orain elgoibartarrek. Eguazteenan egin zuten areto futboleko igoera faseko neurketen zozketa, eta horren arabera, Concepto Egilek Bartzelonako Montcada taldearen kontra jokatu beharko du. Joan-etorriko kanporaketa izango da. Joanekoa Montcadan jokatuko dute maiatzaren 18an, eta itzulikoa Elgoibarren izango da, hilaren 25ean.

Kanporaketa hori prestatze aldera, lehenengo mailako Triman Navarra taldearen kontra jokatuko du gaur Concepto Egilek. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian izango da partida, 20:00etatik aurrera. Montcada taldeak bigarren bukatu zuen liga bere multzotan, txapeldunak baino puntu bat gutxiagorekin.

## Mekatar Xake Txapelketa, final zortzirenetan da

Bukatu da Mekatar xake taldeak antolatutako txapelketako lehen fasea, eta final zortzirenetan sartu da. Multzo bakoitzeko txapeldunak zuzenean sailkatu dira (Jose Luis Larrañaga, Jon Gurrutxaga, Ignacio Vazquez eta Mikel Leon), eta azken biak zuzenean kanpoan geratu dira. Gainerako 24 xakelariak bigarren fase bat jokatuko dute, eta hamabi onenek final zortzirenak jokatuko dituzte.

## 60 urtetik gorakoentzako kirol saioak Mintxetan

60 urtetik gorakoentzako kirol saioek apirilean izandako arrakastaren ostean, maiatzerako ere antolatu dituzte Kirol Patronatuak eta Ongizate Sailak. Interesatuak hilaren 14an, 21ean eta 28an izango dituzte hurrengo saioak. Goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean Kirol Patronatuko teknikariek Mintxetako aparkalekuan dauden gimnasiako aparatuek erabiltzen irakatsiko diete eta ordubeteko ibilaldia egingo dute Mintxeta inguruan.

## Zilarrezko mailara igotzeko fasea jokatuko du Tecnifuellek asteburuan

Olaizaga kiroldegian izango dira partidak, gaurtik domekara



Es kubaloiko Euskadiko Txapelketa irabazi ostean, Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatuko du asteburu honetan Tecnifuelle senior nesken taldeak Olaizaga kiroldegian. Kantabriako, Kanariar Uharteetako eta Gaztela eta Leongo taldeen aurka lehiatuko dira Elgoibarko neskek.

Elgoibarkoa bezalako beste bost kanporaketa jokatuko dira, aldi berean, Espainiako beste hainbat hiritan. Espainiako 24 talderik onenak lehiatuko dira iguera fase honetan, eta horien artean izango da Tecnifuelle. Elgoibarko kanporaketa irabazten duenak beste bost kanporaketetako irabazleen aurka jokatu beharko du azken fasea, eta, hori irabazten duena igoko da mailaz.

## Arratzuko nazioarteko mendi lasterketa irabazi du Maite Maiorak

Azken asteburuak borobilak izan dira Maite Maiorentzat. Mendaroko Mendi lasterketan hasi zuen bolada ona eta geroztik ez da podioko goreneko kaxoitik jaitsi. Etxeko lasterketa irabazi ostean, Aloñako Igoerako emakumerik azkarrena izan zen, eta, azken garaipena Tuga Arratzu Urdai-bai nazioarteko mendi lasterketan lortu du. Parte hartzaileek 32 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten Arratzu inguruko mendi eta muino garrantzitsuenak zeharkatuz. 174 lagunek amaitu zuten proba. Mutiletan, hiru elgoibartarrek hartu zuten parte: Iñigo Larizek, Iñaki Etxabek eta Edu Uribek.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Leioa 1 – Haundi 0 (3. maila)  
Elgoibar 4 – Ilixtxa 0 (Erreg.)  
Elgoibar 6 – Zumaiako 1 (Neskak)  
Elgoibar 2 – Zarautz 0 (Jub.)  
Elgoibar 2 – Urola 4 (Kad. A)  
Elgoibar 2 – Tolosa 1 (Kad. B)  
Lagun Onak 10 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 5 – Urki 0 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 1 – Zumaiako 2 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 5 – Pinseque 3 (2B)

### ESKUBALOAIA

Soraluce 26 – Alcorta Elg. 27 (Sen. mut.)  
Egia Bera Bera 31 – Tecnifuelle 30 (Sen. nesk.)  
Gabaz Elg. 37 – Ordizia 28 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 23 – Tolosa 31 (Jub. mut.)  
Aiala 27 – Lauko 25 (Jub. nesk.)  
Tolosa 37 – Txarriduna Elg. 32 (Kad. mut.)  
Egia Bera Bera 17 – Astigarraga Elg. 29 (Kad. nesk.)  
Usurbil 34 – Ikus Elg. 23 (Kad. nesk.)  
Pneumax Elg. 15 – Soraluce 24 (Kad. mut.)  
Legazpi 19 – Murgil Elg. 30 (Inf. nesk.)  
Urrietako 14 – Bankoa Elg. 29 (Inf. mut.)  
Legazpi 14 – Aterpe Elg. 24 (Inf. nesk.)  
Aiala 22 – Cometel Elg. 17 (Inf. nesk.)  
Deca Elg. 14 – Arrasate 17 (Inf. mut.)

### PILOTA

Lagunak 5 – Soraluze 22 (Nag.)  
Lagunak 17 – Bergara 22 (Jub.)  
Lagunak 2 – Bergara 22 (Kad.)  
Lagunak 8 – Eibar 22 (Nag.)  
Tartaloeixe 22 – Lagunak 8 (Nag.)  
Anizabalaga / Txumuka 22 – Jaunarena-Andueza 18 (Nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11  
12:00 Elgoibar – Amaiak Bat (Ohorezko inf.)  
18:00 Haundi – Cultural Durango (3. maila)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Barvakua, 10  
18:15 B.M. Valladolid – Dosa Cantabria (Sen. nes.)  
20:00 Tecnifuelle Elg. – Valsequillo Canarias (Sen. nes.)

### Zapatua, 11

9:45 Astigarraga Elg. – Egia (Kad. nesk.)  
11:00 Lauko Elg. – Eharialdea (Jub. nesk.)  
12:45 Txarriduna Elg. – Karibe zaharra (Kad. mut.)  
17:00 B.M. Valladolid – Valsequillo Canarias (Sen. nesk.)

18:45 B.M. Cantabria – Tecnifuelle Elg. (Sen. nesk.)

### Domeka, 12

10:15 Valsequillo Canarias – B.M. Cantabria (Sen. nesk.)  
12:00 Tecnifuelle Elg. – B.M. Valladolid (Sen. nesk.)

### PILOTA (Ikastolan)

Barvakua, 10  
21:30 Lagunak - Beloki (Nag.)



ESKERTZA

## MILAGROS BERGANZO IRCIO

1930eko uztailaren 29an jaio zen, Salinillas de Buradonen (Araba)

*“Ez zaitugu inoiz ahaztuko”*

Zure lagunak



ESKERTZA

## MILAGROS BERGANZO IRCIO

*Zuk erakutsi zenigun oinez ibiltzen  
eta orain zu gabe egin behar dugu aurrera.  
Inoiz ez zaitugu ahaztuko*

Familiakoak

1930eko uztailaren 29an jaio zen,  
Salinillas de Buradonen (Araba)



I. URTEURRENA

## ANGEL MARI ARREGI CANO

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

*“Enarak bueltau dittuk eta hire izena ekarri juek mokoetan”*

Koadrilako lagunak



I. URTEURRENA

## ANGEL MARI ARREGI CANO

*Gure ondotik  
joan zara,  
baina betiko  
izango zaitugu  
gure bihotzetan.*

Familiakoak

2012ko maiatzaren 11n hil zen





• Zorionak **Garaziri**, igandean jaunartzea egingo duelako. Ondo pasa, etxekoen eta ahizpa Iruneren partez.



• Zorionak, **losu**, apirilaren 30ean 4 urte bete zenituelako. Muxu asko, etxekoen partez.



• Zorionak, **Hodel**, maiatzaren 3an 5 urte egin zenituelako. Muxu asko, etxekoen partez.



• Zorionak, **Garazi**, maiatzaren 3an 9 urte bete zenituelako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Teo**, etzi urtea beteko duzulako. Patxo bat etxekoen partez, eta bereziki, anaia Sabinen partez.



• Zorionak, **Haritz!** Ederto pasatu genuen zure urtebetetze jaietan. Paaa! Enaitz, Oinatz, Jare, Luken eta June.



• Zorionak, **Ines**, zure bigarren urtebetetzean. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Olatz**, asteartean 11 urte bete zenituelako. Uxue eta Aitor, gurasoen eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Izaro**, maiatzaren 9an 9 urte egin dituzulako. Neba Urkoren, gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **June**, zure hamargarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Helene**, igandean 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Malen**, igandean 8 urte potolo beteko dituzulako. Maite zaitugun guztien partez, muxu bat.



• Beste urte bat gehiago, **guapisimal** Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Etxekoen partez, eta bereziki zure errege txikiaren partez.



• Zorionak, **Miriam**, maiatzaren 13an 12 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



• Udaberrian datoz loren garaiak. **Manex**ek zazpigarren urtebetetzea. **Olalak**, berriz, jaunartzea. Zorionak bioi.



• Zorionak, **Paula**, maiatzaren 4an 3 urte egin zenituelako, eta zorionak, **Julen**, maiatzaren 6an 4 urte bete zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Uxue**, zure lehen jaunartzean, eta zorionak, **Saioa**, zure bosgarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jon**, maiatzaren 3an 2 urte egin zenituelako. Patxo handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ainhoa eta Jesus!** Familiako guztien partez, eta bereziki Anerren partez.



• Zuen ezkontzaren 60. urteurrenean, zuen alabek, suhi eta bilobek, zera diogu maitasun handiz: "Zuen zintotasuna, gure eredu". Zorionak, **Miguel eta Manoli**.



• Zorionak, **June**, Dagoeneko 2 urte, neska handi! Muxu bat familiakoen partez. Ondo pasa, maitia!



Egun polita pasatu genuen elkarrekin **1943an jaiotakook**. Errepikatzeak merezi du!.

## 10 barixakua

### *Bideo forum*

21:30 Kafea pastekin

Haizeak antolatuta, bideo forum saioa, Kultur Etxean. Kafea eta pastak eskainiko dituzte.

### *Musika*

23:00 Kontzertua

The Gravelites taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

## 11 zapatua

### *Kirola*

6:00 Morkaikoren Eguna

Morkaikok antolatuta, mendi itzulia eta itzulitxoia egingo dituzte.

Kalegoen plazan bazkalduko dute, eta arratsaldean umeentzako jolasak izango dira.

### *Musika*

12:30 Saxofoi-jotzaileen topaketak

Kalejira egingo dute, eta 16:30ean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian.

## 12 domeka

### *Musika*

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

1. *Queens park Melody*, J. de Haam
2. *La cenicienta*, G. Rossini
3. *Caravan*, J. Tizol-N. Iwai
4. *Los viajes de Gulliver*, Bert

Appermont

5. *Suspiros del cafe España*, A. Alvarez

6. *El caserío*, Jesus Guridi

## 14 martitzena

### *Autoformazioa*

20:00 Espektakuluaren gizartea

Espektakuluaren gizarteari buruzko formazio saioa, Gaztetxean.

## 15 eguaztena

### *Hitzaldia*

16:15 'Seme-alaben elikadura'

Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, Herri Eskolan. LH1 eta LH2ko umeen gurasoentzako.

### *Informazio saioa*

18:00 Ingeniaritza eta lanbide

heziketa

IMHn.

## 16 eguena

### *Hitzaldia*

19:00 'Zer ote da euskal

feminismoa?'

Emakumeen Asanbladak antolatuta, Iratxe Retolazak emango du hitzaldia. Euskalgintza eta feminismoa izango ditu hizpide.

## ZWEA

### 'Tesis sobre un homicidio'

10, barixakua: 22:15

11, zapatua: 19:00/22:15

12, domeka: 19:00

13, astelehena: 21:30



**OKINDEGIA** \_\_\_\_\_ 12 domeka: **IBARRENEA**

**BOTIKA ORDUTEGIAK** \_\_\_\_\_

**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

**GUARDIAK** \_\_\_\_\_

#### Egunez

9:00 - 22:00

10 Zabaleta  
11 Barrenetxea

12 Barrenetxea  
13 Ibañez  
14 Garitaonandia  
15 Etxeberria  
16 Fernandez  
17 Barrenetxea

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea  
Barrenetxea

Barrenetxea  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Barrenetxea



**Maiatzak 17 ostirala, Txupinazo eguna. Ludotekako 4. Aste Nagusiari hasiera emango diogu, buruhandi eta trikitilariak girotuta. Anima zaituz!**

**Izarraitzeko konkistarako abantaila bat lortu nahi? Hartu parte maiatzaren 19an Hiruiturriko lehiaketan**



• Itzali 2 kandela eta moztu ezazu pastela! Zorionak, **Oier!** Familiakoan, eta bereziki, Mirenen partez.



• Iritsi da beste urte bat! Zorionak, **bikotel!** Etxekoan partez.



• Zorionak, **Sare eta Befiat**, zuen laugarren eta zortzigarren urtebetetzeari. Patxo handi bana etxekoan partez.



• Zorionak, **Inazio eta Juanita**, familia osoaren partez. Joan den maiatzaren 4an zuen urrezko ezteiak izan ziren eta oso ondo pasatu genuen.



ESKERTZA

## CESAR CORO HUBERT

2013ko apirilaren 23an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## CARLOS REZOLA PERELLÓ

2013ko maiatzaren 2an Andoainen hil zen, 44 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.  
Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, maiatzak 11n, arratsaldeko 19:00etan  
Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

## ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA

*Nola agurtu gure laguna  
hamar lerro eskaxetan  
ezin sinistu, ezin ulertu  
hor gabiltza burruketan  
emazte, ama, alaba ona  
neska alaia benetan  
zure taupadak entzuten dira  
koadrilako bihotzetan  
beti aurkituko dugu elkar  
Anbotoko zelaietan*

2012ko maiatzaren 7an hil zen  
Elgoibarren

Koadrilako lagunak



I. URTEURRENA

## ITZIAR LOIOLA ARRILLAGA

*Gure ondotik joan zinela  
urtebete pasa zaigu.  
Zuk utzitako hutsuneakin  
bihotza minduta dugu.  
Zure irribarre ta alaitasunaz  
gogoan bizi gera gu.  
Zeruko izarrik argitsuena  
Itziar maite zaitugu.*

2012ko maiatzaren 7an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 11n, izango da arratsaldeko 19:00etan  
Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

Zure familia

## Beti dago lehen aldi bat edo zertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu.  
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;  
erosketa supermerkatua joan gabe egiteko,  
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online  
estreinatzeko unea.  
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

# 10€

oparituko dizkizugu online egindako  
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik  
gorako eskaerarako balio du.

[eroski.es](http://eroski.es)

 EROSKI online  
zurekin

## UDAKO IKASTARO TRINKOAK

ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA ETA ITALIERA

### Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino

Ordutegia  
goiz eta arratsaldez

Informazioa, matrikula eta ordutegiak:

2 edo 3 ordu egunean

[www.ils.es](http://www.ils.es)

943 744 040

Uztailaren 1etik 26ra

Maila guztiak

Orokorra eta  
komertziala

Talde murriztuak

Cambridge Azterketak



Azkué Autza 1 (IMH)  
20870 ELGOIBAR

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak



RPS 49/12

**EIBAR**  
**San Juan kalea, 7**  
**943 82 18 85**